

NIRE HERNANI

Uxue Apaolaza

Hernani herri bat da, baina ez hainbeste, haziz-haziz joan da hogeita mila inguru begirada biltzeraino, baina ez da hiri izatera ere iristen. Dena baino, dela uste duguna, bakoitzaren Hernani, eta izatea nahi genukeena. Nik nahi nuke adibidez Zinkoenaraino igo behar dudana aldapa elektrikoa izatea, eta baita plazarainokoa ere ahal balitz (Gasteizko alde zaharreko ranpak inportagarriak iruditzen zaizkit) kotxerik gabeko herri batean. Ez genuke Eroskira sartzea itxoin beharko eskailera elektrikoen plazera sentitzeko.

Denbora luzez ibili gabeko bideak izanik ere, ume ginenean ezagutuak begiratu gabe zeharka ditzakegu, haurtzaroan burmuineko GPSren bat elikatuko bagenu bezala, horregatik denda berriek, etxe eraiki berriek, Agustinetako plaza berriak baizik ez ditut bereizten.

Inertziak atera zait *"Iepa"*. Ez dakit ez ote dudana ezustean harrapatu, bekainak altxatzeko baino denbora eman ez dienez. Ez dakit zergatik ezaguna egin zaidan bere aurpegia; beharbada ezagutzen ez dudana aurpegi ezagun bat besterik ez da, Hernani bezalako herrietan hain ohikoak, Thailandian topatuz gero baizik agurtu behar ez diren horiek, egunero tabernan topatu arren.

Plaza Berriko kafetegi honetan turistatzen sentitzen naiz, miradore tankera du; eguzkiak jotzen dit aurpegian sonbrilaren itzala mahaitik urrun geratzen denez, haurren algarak eta gurasoen zurrumurrua entzuten da, plaza baino parkea bailitzan; ur hotsa baizik ez da falta.

Nola ezagutu nuen gogoratzen ez dudana neska bat dago pare bat lagunekin, garai hartan ere lagun zituen berberak. Begiratu egin nau; *"ezagutzen zaitut eta horregatik begiratzen zaitut normala baino apur bat luzeago, ume batekin zaudelako ere bai, eta zuk ere normala baino luzeago begiratu ez baninduzu ez zintuzkedalako ezagutuko; lodiago zaude, eta a ze titi puskak"*. Hori guztia irakurri uste izan dut bere begietan kafesnari azukrea katiluari begiratu gabe botatzen diodan bitartean.

Begira ari zitzaidan beste neska bat ere, nire soarekin berea topatu denean bekainak altxatu dituen irribarrea ote zen ez dakidan keinuz, ez dakit harriduraz edo sinpatia sutilez. Maja zen, eta konta dezaket hori frogatzeko anekdota pare bat, estetikoak, *"saber estar"* eta horrelako espresioez.

Gorroto begiradaren bat ere irakurri nahiko nuke, baina ezta hori ere. Gogait keinuren bat irakurri dut mutil baten begietan, batzuk ez digute inoiz barkatuko koadrilako itsusiei galdu arazi genien denbora.

Haurrak jolasean dabilta, gurasoak oparotasun aurpegiz, irribarre eta kezka oparoak, kioskoa besoak zabalik, eta paper artean egunkaria eskatetik baino ezagutzen ez dudana begirada dagoeneko etxekotua. Ura falta zaio plaza honi esan bezala, ur musika pixka bat, iturri handi bat, ura edateko balio ez duten horietakoa, ikusteko bakarrik. Txorien doinua entzuten da, eta kanpaiena noizean behin, haurrena, eta mahai eta bankuetatik marmarrak. Berria denak ez ditu ikusten aulkitik aulkira, bizkarren artean dabilta gorrotoak.

Kioskoaren atzetik pasa zara zu, miopea naiz eta hala ere lehen behakoan ezagutu zaitut, ibileragatik, argala izateko daukazun modu horregatik, kamiseta zuri eta galtza motz bakeroez. Nire alaba berriak ez zaitu ezagutuko, eta ez ditu sumatuko amak eta gizon argalak elkarri eskaini dizkieten begiradak, inoiz gurutzatu gabe.

Tilostan igo behar den aldapan ere jarriko nuke ranpa bat, beti pentsatu dut, baina orain haurraren karrotxoarekin, are gehiago. Hemen mahaiak ilunetik eguzkitara doaz plaza nagusira hurbildu ahala; ni terraza batetara eguzkiagandik ihesi joaten diren aldean jarri naiz. Umeak dabilta hemen ere, eta gurasoak beraz, hogeita hamar urtetara iritsi eta denak haurdun geratuz joan gara, adin kontua balitz bezala, zimurrak bezala, haurdun geratzearena.

Ostras, ez nintzen berarekin gogoratu ere egiten, begirada berdinarekin jarraitzen du. Orduan miopia edo izango zela uste nuen, kalean ondo ondolik pasa eta ezagutzen ez zintuelako, baina ez da hori, paso egiten du, burbuila batean bizi da opio dosi batzuk tarteko, begietan orduan identifikatzen ez nuen hezetasunaz, eta ninien diametroa zabal-zabalik, keinuen kadentzia. Alabak lo jarraitzen du, baina ez geratzea erabaki dut azkenean; bakarrik etortzeko bai, baina hotz dago itzalgune hau eta esnatu egingo zait azkenean.

Nik musika kioskoaren eta terrazen artean dauden zuhaitzak moztu eta sonbrilak jarriko nituzke. Eta jazz talde bat kioskoan, erreformatu ondoren noski. Ez nintzateke proposamen hori serio egitera ausartuko alkatea izanik ere.

Amaren nagusiaren semea dator aldapan behera umearekin; begirada informatibo edo elkarrizketa sortzailea gurtzatu dugu irribarre batez; nik etxean beira ikusi dudala esan dezadan, berak lantokian nire amari ikusi nauela esan diezaion.

Zu eguzkiaren aldean ikusi zaitut, baina niri asko kostatzen zait haraino joatea. Etxera noa, umea amarekin uztera, gaua niretzat izan dadin.

Etxerako bidea aldapan behera baldin bada ere, eskertuko nuke oinez ez ibili beharra, gau bakartian edaniko zerbezek belaunak ahultzen baitzizkirate. Tabernako euforiaren ondoren malenkoniatsuak dira bakardadean ibiltzen diren itzulerak. Belarrien pareta, buru barruan, gainkargatua sentitzen dut, gaua hantxe pilatu balitzait bezala, baina gauza zehatzak orden narratiborik gabe etortzen zaizkit, flash eran. Begiradak batez ere, nik nire erara irakurri ditudan errealtatearekin zer ikusi handirik gabe ziurrenik. Politikaz eztabaidaren bat, ez, ez dakit erantzun diodan, ezetz uste dut, baina erantzun gabe utzitako guztiak bezala luzeago geratuko zait buruan, batez ere politikari buruzko eztabaidak oso gutxi bilakatu direnaren sentsazioa, nire lehengo argudioak orain nire aurka erabiltzen direla konprobatzea. Seme alabak, gurasoen lagunen seme alabekin oheratzen dira. Ni ez naiz betiko tabernatik mugitzen hainbeste urteren ondoren. Eta zergatik itzultzen da bat herrira? Haurrak izan ondoren batez ere; horregatik beharbada, herriak egokiagoak dira umeentzat, eta guri ere amaren altzoaren mirak gehiegi pisatzen digu munduan zehar galdurik ibiltzeko. Jaioterria ama bat bezalakoa da, horregatik ez digu aldatzen uzten, jaioterriarentzat beti gara bere alabatxoak, errieta egiten digu, zaplaztekoren bat eman noizean behin, inorenak baino mingarriagoak, baina haserretzen bagaitu, betiko saiatuko gara bakeak egiten (pertsonek batzuk betirako galdu edo gustu handiz bide bazterrean utzi arren). Eta guri Hernani tokatu zaigu. Onak edo txarrak, gauza ezagunak gustatzen zaizkigu, urtetik urtera gutxi aldatzen direnak.

Ez da hala ere nik bizi dudana herria nire gurasoek bizi zutena, antza dute, baina ezberdinak dira, beraiek nirea ia ez ezagutzeraino. Eta nire alaba nirea ez den Hernani batean biziko da; mendetako herentziaren kargak pisua galtzen duen segundoan (a ez, ez zen horrela).

Baina gaur batez ere zu ikusi zaitut tabernatik irtetean, eta irribarre egin didazu, eta inor ohartu gabe eskua ukitu. Eta hori da dena.